




## 46. Heineken Jazzaldia

### Hizkuntza erabileraren neurketa

## **AURKIBIDEA**

### 1. Sarrera

#### 1.1. Lan metodologia

### 2. Idatzizko materiala

- 2.1. Programazio liburuxka
- 2.2. Esku egitaraua
- 2.3. Esku orriak, sarrerak, abonua...
- 2.4. Prentsa oharra
- 2.5. Web orria
- 2.6. Jazzaldiko kartela
- 2.7. Bestelakoak: Paisai linguistikoa,...

### 3. Ahozko erabilera

- 3.1. Prentsaurrekoak
  - 3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpenaren prentsaurrekoa
  - 3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk
  - 3.1.3. Heineken Jazzaldiko saria: Toots Thielemasi
  - 3.1.4. Balorazio prentsaurrekoa
- 3.2. Kontzertuetako aurkezpenak
- 3.3. Bestelakoak

### 4. Ondorioak

## 1. Sarrera

1998. urtean BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta, orduz geroztik, urtero aztertu du musika jaialdia. BAGERAk Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldiak diren neurrian, ahozko hizkuntza erabilera, saioen aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan erabiltzen dena mugatzen da. Idatzizko materialean berriz, esku liburu, kartel, pasai linguistiko eta abar hartzen dugu kontuan.

Donostian egiten diren beste ekintza batzuetan bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntza aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua ezagutu asmoz.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute.

### 1.1. Lan metodologia

Denetara 7 lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabileraren eta idatzizko materiala aztertuz.

Behatzaileekin Jazzaldia hasi aurretik bildu gara eta egitaraua eskutan, bakoitza zein emanaldira joango den zehaztu dugu. Fitxa betetzeko argibideak eman dizkiegu eta Jazzaldia amaitutakoan, aipatutako fitxak bildu ditugu. Azkenik, bildutako datuekin txosten hau osatu dugu.

Ohar modura esan, txostenean bi eletan edo bi hizkuntzetan esaten denean, besterik zehaztu gabe, euskaraz eta gazteleraz esan nahi duela.

## **2. Idatzizko materiala**

### **2.1. Programazio liburuxka.**

Jazzaldiari buruzko informazioa luze zabalean azaltzen den liburuxka da. Musikari eta talde bakoitzaren berri ematen da. Aurtengo edizioak 64 orrialde ditu.

Azalean, 2011ko kartela azaltzen da. Data ele bitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eta 46 Heineken Jazzaldia jartzen du. Prezioa ere ele bitan dago. Azken orrialdean iragarki bat ageri da, Heineken-ena eta gaztelania hutsean dago.

Sarrera ele bitan idatzita dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eta hitzez-hitzezko itzulpena da, euskaraz eta gaztelaniaz informazio bera azaltzen baita.

Liburuxka honetako atal desberdinetan egunez egun dauden ekitaldietan parte hartuko duten abeslari eta taldeei buruzko azalpenak daude, informazio guztia – egitaraua, Clinic SGAE, Kutxa Kultur 2011, Zu falta al zara Jaialdian? Lehiaketa, Jazzaldia 2011ko menuak, musikariak, Donostiako Jazzaldia Saria, Catalunya & Heineken Jazzaldia, Gaueko Autobus Zerbitzua, Argibide Orokorrak– ele bitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.

Iragarkiekin ez da testuarekin bezala gertatzen eta gaztelania da hizkuntza nagusia:

#### **Gaztelania hutsezko iragarkiak: (10)**

- 2.or. Frigo
- 8.or. Eskoda (helbidea euskaraz)
- 12.or. Cuadernos de Jazz
- 14.or. Cadena Ser
- 16.or. Distrito Jazz
- 18.or. Coca-Cola
- 55.or. Jazz euskadi
- 56.or. Fnac
- 63.or. Pago
- 64.or. Heineken

#### **Euskara hutsezko iragarkiak: (0)**

#### **Euskaraz eta gaztelaniaz dauden iragarkiak: (4)**

- 6.or. El Diario Vasco
- 10.or. Gizarte Kutxa
- 20.or. Turismo-eskaintza
- 60.or. San Telmo Museoa

**Hiru ele eta lau eletan: (3)**

22. or. Donostia 2016 ([www.sansenbastian2016.eu](http://www.sansenbastian2016.eu) helbidea gazteleraz)

54. Getxo Jazza

58.or. Pyrineo

**2.2. Esku egitaraua**

Sakelan eramateko egitarau laburtuari dagokionez, aurrean Jazzaldiko kartela ele bitan azaltzen da eta atzean antolatzaile, babesle eta laguntzaileen logotipoak. Esku orria zabaltzerakoan agertokien plano dago, lekuen izenak bi eletan azaltzen dira. Esku orria guztiz irekitzean, Jazzaldiaren egitaraua dago, informazio guztia ele bitan irakurri daitekeen.

**2.3. Esku orriak, sarrerak, abonua...**

Atal honetan Heineken Jazzaldiaren inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Eskuratu ditugun esku orrietatik, bi hizkuntzetan idatzita (hau da, euskaraz eta gazteleraz) "tokiko taldeen kontzertuen egutegia" eta "Jazz-inprobisazioaren alderdiak CILINIC-a TRIEZen eskutik" izan dira.

Fnac-ek kaleratutako uztaileko programazioan, Heineken Jazzaldiko informazioa eta Skodak ateratako esku orriak gaztelera hutsez izan dira.

Heineken Jazzaldiaren jaialdiaren harira antolatutako festarako gonbidapen txartela euskaraz jaso genuen.

Eguraldi txarra zela eta, Nauticool eta Kursaaletako terrazetan izateko ziren kontzertuetan izan ziren aldaketen berri banatu eta jarri zituzten oharra euskaraz zein gazteleraz irakurri zitezkeen.

Bestetik, Trinitate enparantzan, Kursaal Auditorioan eta San Telmo museoan izan diren emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak, Trinitate enparantzako sarreretan "asiento no garantizado" oharra gazteleraz soilik zegoen. Kursaal Auditorioan eta San Telmo museoko sarreraren kasuan, oharrez gain, lekuen izenak ere gazteleraz zeuden (Las noches en San Telmo, Kursaal Auditorio, Espacio Kutxa, asiento no garantizado, 24:30 H).

Azkenik, abonuekin batera jaso dugun komunikabide akreditatuentzako lan arauetarako 3 orriko prentsa oharra gazteleraz eman ziguten ("normas de trabajo para los medios de comunicación acreditados").

## 2.4. Prentsa oharrak

BAGERAn, posta elektronikoz bidez 35 mezu jaso ditugu; hauetatik 30, ele bitan jasoak izan dira (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz), aipatu beharra dugu, iaz ez bezala, aurten atxikitako dokumentuen izenak euskaraz (lehenengo) eta gazteleraz (ondoren) jaso ditugula (bul uztailak 23 aurrerapena.doc / bol 23 previo.doc). Iaz euskarazko dokumentuetan ...eus.doc jartzen zuen eta gaztelerazkoan ...doc bakarrik jartzen zuen.

Beste 5 mezuak euskaraz jaso ditugu (4 gure mezuei erantzunez eta bestea Heineken Jazzaldia festarako gonbitea).

## 2.5. Web gunea

www.jazzaldia.com web gunea:

Aurtengo Jazzaldian webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuak konfiguratuta duen hizkuntzan irakur daiteke (iaz bezala). Ondoren nahi duzun hizkuntza aukeratu dezakezu (euskara, castellano, english).

Oro har, hizkuntzen arteko oreka behar bezala mantentzen da webgunean. Hala eta guztiz ere, hutsune batzuk daude:

- “Edukiak” atalean, “Art Pepper”-i buruz datorren informazioa gazteleraz dago. “Late Show”-i buruz datorren informazioa gaztelerazko bertsiora bidaltzen dizu. “Late Show” eta “la aldea se jacta” iruzkina ere gazteleraz bakarrik irakur daiteke.
- “Iruzkinak” atala gaztelera hutsez dago.
- Zuzendariaren bloga gazteleraz.
- Emailez harpidetza egiteko orria gazteleraz (petición de subscripción por email).
- Kontaktua eta prentsa atalean, Donostiako Heineken Jazzaldiaren helbidea gazteleraz aurkitu dugu (Teatro Victoria Eugenia Reina Regente, 8).
- Izena emateko baldintzen dokumentua gaztelera hutsez dago.
- Berriak atalean, “Jacson Browne Agertoki berdean izango da” artikuluan, “Agertoki Berdea”, “Jackson Browne”, “Dawes” edo “Aloe Blace” loturak sakatzean gaztelerazko bertsiora eramaten zaitu.

- Berriak atalean, puri-purian sailean, artikulua guztiak gazteleraz daude.
- Sarrerak salgai, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidea sakatzerakoan gaztelerazko orrira eramaten zaitu.
- Eskuinean 5 baner daude:
  - ✓ Bat hiru hizkuntzatan "sarrerak salgai, entradas a la venta, tickets on sale" baina klikatzerakoan kutxako gaztelerazko bertsiora eramaten zaitu.
  - ✓ Bi euskaraz, bata, "Zu falta al zara?" informazio osoa euskaraz badago ere, [www.heinekenjazzaldia.com](http://www.heinekenjazzaldia.com) lotura sakatzerakoan gaztelerazko orrira eramaten zaitu. Bestea, "Turismo eskaintza Heineken Jazzaldia" kasuan berdin gertatzen da, gainean sakatzerakoan, "central de reservas" orrira bideratzen zaitu gaztelerazko bertsiora.
  - ✓ Bi gazteleraz, "central de reservas" baina kasu hontan, lotura euskarazko bertsiora eramaten zaitu. "heineken.es" banerra gazteleraz soilik irakur daiteke.

## 2.6. Jazzaldiko kartela

Aurten ere, Jazzaldia iragartzeko kartelean, azaltzen den informazioa laburra bada ere, euskaraz eta gaztelaniaz dago.

## 2.7. Bestelakoak: paisai linguistikoa, ...

Kursaaleko bi kuboen artean dagoen plazatxoan, Heineken eszenategiaren ondoan, Galiziako turismoa sustatzeko hainbat agertoki jarri ziren. Hauetan banatzen ziren euskarrietan edota karteletan ez genuen euskarazko idatzirik topatu.

Kursaal Auditorioaren sarreran panel ezberdinak zeuden, guztiak ele bitan, Skodarena izan ezik gazteleraz zegoen.

Trinitate enparantzako Publizitate panel digitala hizkuntzarik gabekoa zen, hau da, Jazzaldian parte hartutako musikari eta taldeen izenak irakur zitezkeen bakarrik. Ez zen bestelako iragarkirik azaltzen. Aurten Kursaalaren kanpoaldean ez da inolako pantaila digitalik ezarri.

Zurriolako hondartzako Agertoki Berdeari dagokionez, eszenatokiaren goiko aldean "Escenario Verde" irakur zitezkeen gazteleraz bakarrik.

Kursaaleko edari eta janarientzako txartelen salmenta-puntuak, prezioen zerrenda bielekan zegoen; Hanburgesei dagokienez, "Hamburgesak" jartzen zuen, "Hanburgesak" jarri beharrean.

### **3. Ahozko erabilera**

#### **3.1. Prentsaurrekoak**

##### **3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpen prentsaurrekoak.**

Martxoaren 30an, eguerdiko 12:30ean, 46. Heineken Jazzaldia aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan.

Prentsaurrekoan Denis Itxaso (Donostiako orduko Kultura eta Gazteria zinegotzia) eta Miguel Martin (Heineken Jazzaldiko zuzendaria) izan ziren.

Denis Itxasok eman zion hasiera prentsaurrekoari lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz (gastelerazko azalpenak luzeagoak izan ziren). Jarraian, Miguel Martinek hartu zuen hitza gasteleraz eta azkenik, Denis Itxasok hitz egin zuen gasteleraz. Egon ziren galdera guztiak gasteleraz egin ziren.

46. Heineken Jazzaldiaren behin betiko egitaraua, uztailaren 1ean aurkeztu zen, eguerdiko 12:00etan, Victoria Eugenia Club Aretoan.

Prentsaurrekoan Nerea Txapartegi (Kultura eta Euskara delegatua), Jesus Torquemada (Heineken Jazzaldiko antolakuntzako kidea) eta Miguel Martín (Heineken Jazzaldiko zuzendaria) izan ziren. Halaber, "Jazzaldiko menua" eskainiko duten 3 jatetxeetako ordezkariak ere.

Prentsaurrekoa bideo batekin hasi zen, Heineken Jazzaldiko agertoki ezberdinetara gerturatuz. Bat-batean saxo-jotzaile bat Klubaren alde batetik jotzen azaldu zen eszenatoki atzean zeuden bandako bere kideekin elkartu arte. Musika entzuten zen bitartean, pantailan, kontzertuen leku eta datak bi eletan irakurri zitezkeen.

Musika bukatzean, Jesus Torquemadak agurra egin zuen, ondoren Miguel Martin eta Nerea Txapartegi aurkeztu zituen euskaraz.

Miguel Martinek Jazzaldiko nondik norakoak eta berrikuntzak azaldu zituen gasteleraz. Jarraian Nerea Txapartegik hartu zuen hitza eta bere interbentzio osoa euskaraz egin zuen. Azkenik, Torquemadak galdera tarte ireki zuen euskaraz eta ondoren gasteleraz. Bi galdera egin ziren eta biak gasteleraz izan ziren.

### 3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk

Gainontzeko prentsaurrekoetan, oro har gaztelera izan da nagusi. Normalean Jesus Torquemadak hasierako agurra ele bitan egiten bazuen ere, ondoren prentsaurrekoa gazteleraz egiten zen, bai prentsaurrekoan zeuden partaideek gazteleraz egiten zutelako edo beste hizkuntzetan hitz egiten zuten musikarien itzulpena gaztelerara izan delako orokorrean. Hala ere, aipatu behar dugu, aurten Jesus Torquemadaz gain, itzultzaile euskaldun bat egon dela euskaraz galdetzen zuten kazetariei itzulpena euskaraz egiteko (galdera hauen erantzuna gaztelerara ere itzuliak izan dira) eta zenbait kasutan musikariaren zenbait interbentzioren laburpena egin zuen euskaraz.

### 3.1.3. Toots Thielemasi Heineken Jazzaldiko saria

Uztailaren 25ean izan zen Victoria Eugeniako Txina Aretoan 12:00etan. Bertan, Juan Karlos Izagirre (Donostiako alkatea), Miguel Martin ( Heineken Jazzaldiko zuzendaria), Jesus Torquemada (Heineken Jazzaldiko antolakuntzako kidea) eta Toots Thielemasi egon ziren.

Jesus Torquemadak eman zion hasiera prentsaurrekoari euskaraz, ondoren Miguel Martinek hartu zuen hitza gazteleraz. Jarraian Juan Karlos Izagirrek bi eletan egin zuen (euskara eta gaztelera tartekatuz, bata bestearen itzulpena eginez). Azkenik, Toots Thielemasik hitz egin zuen ingelesez (Jesus Torquemadak itzulpena gazteleraz).

Galdera gehienak gazteleraz izan ziren eta gaztelerara itzuli zituzten erantzunak. Euskaraz galdera bakarra egon zen eta erantzunaren itzulpena euskaraz izan zen. Beste kasu batean, frantsesez egin zuten galdera, Toots Thielemasik ingelesez erantzun zuen eta Jesus Torquemadak gaztelerara itzuli zuen.

### 3.1.4. Balorazio prentsaurrekoa

Uztailak 26, 12:00etan Udaletxeko Gobernu Batzordearen aretoan izan zen 46. Heineken Jazzaldiaren balorazio prentsaurrekoa.

Bertan, Nerea Txapartegi (Donostiako Udaleko Kultura eta Euskara Delegatua) eta Miguel Martin (Heineken Jazzaldiko Zuzendaria) izan ziren.

Torquemadak sarrera eta parte hartzaileen aurkezpena ele bietan egin zuen. Nerea Txapartegik euskaraz eta jarraian gazteleraz egin zuen. Ondoren, Miguel Martinek hartu zuen hitza 46. Heineken Jazzaldiko balorazioa gazteleraz eginez.

Galdera tarteari dagokionez, egin ziren galdera guztiak gazteleraz izan ziren. Nerea Txapartegik erantzun zituen bi galdera izan ezik, bi eletan erantzun zituen.

### 3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

Behatutako kontzertuen aurkezpenak, egon diren kasuetan, lekuaren eta taldearen arabera izan da. Trinitate enparantzan, bieletan izan ziren eta lehenbizi euskaraz eta ondoren gazteleraz egiten zuten. Kursaal Auditorioan, Hiromiren kasuan ele bitan izan zen (% 50 euskaraz eta % 50 gazteleraz). Toots Thielemansen kasuan euskaraz egindako aurkezpena luzeago izan zen gazteleraz baino (%75 euskaraz eta %25 gazteleraz). Beste agertokieta, gehienetan ez da aurkezpenik egin eta egin diren kasuetan jo behar zuen taldeak berak egiten zuen (gehienetan ingelesez, Crystal Fightersen eta Tucson Jazz Institute Ellington Band-en kasuan, euskaraz ere hitz batzuk egin zituzten. Reas Miguel & Tafari taldeak aldiz, gehiengo gazteleraz egin zuen.

### 3.3. Bestelakoak

Kurssaleko Auditorioan, Ganbera Aretoan zein Victoria Eugenia Antzokiko sarreretan zeuden langileen artean, gehiengoak euskaraz erantzuteko gaitasuna erakutsi zuten.

Okendo plazan, Victoria Eugenia eraikinean Jazzaldiko informazio-bulegoa egon zen. Bertako 4 langileekin hitz egiteko aukera izan genuen eta guztiekin euskaraz hitz egiteko aukera izan dugu. Langile hauei dagokionez, aurten erakutsi duten euskara-mailak hobera egin du nabarmen aurreko urteetakoekin alderatuta.

## 4. Ondorioak

Aurreko ekitalditik hainbat hobekuntza topatu ditugun arren, oraindik beste hainbat akats errepikatzen dira. Akats nagusiak iragarleen hizkuntzan eta prentsaurrekoetan topatu ditugu.

### Idatzizko hizkuntza

Idatzizko materialean, hau da, Jazzaldiaren egitarau osatuan, orrialdeko egitarauan, paisai linguistikoan, prentsa oharretan eta abar, elebitasuna nagusi da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Bi eletan dauden testuak (euskaraz eta gaztelera), bata bestearen itzulpen literalak dira, eta beti, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita daude.

Aurrerapauso batzuk izan dira, bestetik, hainbat hutsune ere izan dira:

Paisai linguistikoan, aurrerapausoak eman direla aipatu nahi dugu, antolakuntzak jartzen dituen kartel, ohar, txartel gehienak bi hizkuntzetan irakurri ahal izan ditugu (lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelera), Agertoki Berdean izan ezik, urtero bezala, jartzen den pankarta gaztelera hutsean zegoen (Escenario Verde). Horretaz gain, Skodak jartzen dituen iragarkietan eta Galizia Turismoak aurten jarritako karpan ez genuen euskararen arrastorik ikusi.

Bageran, jasotako prentsa ohar guztiak bi eletan jaso ditugu. Aurrerapausotzat jotzen dugu aurten, mezuari gehituta zetozen euskarazko prentsa ohar dokumentu guztiak, euskarazko izenburuarekin zetozela (bul uztailak 23 aurrerapena.doc). Iaz euskarazko dokumentu batzuetan ...eus.doc jartzen zuen eta gazteleraazkoan ...doc, besterik gabe edota askotan dokumentuaren izenburua gaztelera, nahiz eta dokumentua zabaltzerakoan, informazio guztia ele bietan egon.

Egitarau osatuan eta oro har idatzizko materiala ele bitan dago. Baina azaltzen diren iragarle etheen iragarki gehienak gaztelera hutsez daude. Hamazazpi iragarle etxe daude, horietatik hamarrek gaztelera bakarrik erabili dute euren iragarkietan, 4k euskaraz eta gaztelera eta 3k hiru eta lau hizkuntza erabili dituzte.

Web orriari dagokionez, aurreko urteetan bezala, norberak bere ordenagailuan aukeratuta duen hizkuntza aukeratu egiten du jazzaldiko webguneak. Bestalde, hutsuneak topatzen jarraitzen ditugu euskarazko bertsioan txostenean aipatu bezala (zenbait informazio gaztelera, iruzkinak atala, Donostiako Heineken Jazzaldiko helbidea kontaktuak eta prentsa atalean, izena emateko baldintzen dokumentuan, banerrak, ...).

Zenbait emanaldietarako eskuratu ditugun sarreretan idatziz zeuden oharrek eta agertokiaren izenak gaztelera hutsez zeuden ("asiento no garantizado", "las noches de San Telmo", "Espacio Kutxa"...).

Fnacek urtero kaleratzen duen esku orrian eta dendako erakusleihoan jartzen duten kartelean informazioa gaztelera hutsez zegoen.

Skoda etxeak ere, kaleratzen duen publizitate euskarri guztiak gaztelera hutsez topatu genituen.

### **Ahozko hizkuntza**

Ahozko hizkuntzari dagokionez, aurkezpenak egon diren gehienetan elebitasuna mantendu da (Trinitate enparantzaren eta Kursaal Auditorioaren kasuan). Beste Agertokietan, jo behar zuen taldeak egin ohi zuen, beste hizkuntza batean eta gehienetan gaztelera hitz batzuk tartekatzen zituzten. Azken orduko oharren bat izan denean bi eletan jaso da.

Bestetik, prentsaurrekoetan euskararen erabilera zertxobait hobetu da, hala ere oso urria izaten jarraitzen du. Positibotzat jotzen dugu udal ordezkariak izan direnean bi eletan egin dituztela interbentzio guztiak eta horretaz gain, aurtien lehen aldiz, espresuki euskarazko itzultzaile bat izan dela. Hala ere, bere parte hartzea oso txikia izan da.

**Laburbilduz**, emaitza orokorrean baikorra izan arren, oro har elebitasuna mantendu delako bai ekitaldien aurkezpenetan baita idatzizko materialean ere, hainbat hutsune badira zuzendu daitezkeenak euskararen normalizaziorako. Beraz, jazzaldiko antolatzaileak gonbidatu nahi ditugu, kontuan har ditzan aipatutako akatsak datorren edizioari begira aurrerapausoak eman daitezen.

Azkenik, BAGERAk Jazzaldiko antolakuntzari eskerrak eman nahi dizkio gure lana egiteko ematen diguten laguntzarengatik eta euskararen normalizazioan ematen dituzten aurrerapausoengatik. Bide batez, aurrerantzean euskararen aldeko lanean laguntzeko prest izango gaituztela gogorarazi nahi diegu.